

Kostuen egitura

- Zein dira zuen proiektuaren kosturik garrantzitsuenak?

Lokal bat erostea, hortz-protisien laborategi bat sortzeko egokitu ahal izateko, gure lana egiteko.

Gastu ezberdinak ditugu, diru gehiena laborategi protesikora eta garraio zerbitzuetara bideratuko da, bestalde, egingo dugun galan ere diru bat inbertitu behar dugu gure burua ezagutarazteko eta dirua biltzeko.

■ Kostuen egitura

- Kostu finkoak: laborategia egiteko lokal bat erosiko dugu, eta behin bakarrik ordainduko dugu, baina lokalaren, argiaren eta uraren zergak hileko edo urteko kuota ordaindu behar ditugu. Boluntarioek ahalik eta baldintzarik onenetan lan egin ahal izateko, garrantzitsua da aseguru bat ordaintzea, edozein lan-istripu izanez gero babestuko dituen. Bestalde, ekipamendua dago dirua inbertitu behar dena, makina eta tresna batzuk behin bakarrik ordaindu beharko ditugu, baina gero horien mantentze-lanak ordaindu behar dira. Garraio enpresari kuota bat ordaindu behar zaio hilero, bere kostua ez da eskariaren arabera aldatuko.
- Kostu aldakorak: gure enpresa une bakoitzean dugun lan-bolumenaren arabera da; horregatik, materialen kostua aldatu egingo da egiten ditugun lanen arabera.
- Eskala ekonomiak: etorkizun batean gure proiektua hazten bada eta eskaria biderkatzen bada etxe komertzialek aukera ezberdinak eskainiko dizkigute eta hala izanez gero protesi gehiago egingo genuke diru bera gastatuz.

■ Gauza bakoitzaren kostuak

Hortz-protisien laborategiaren kostuak

- Lokala
 - Lokal bat erosi. [Lokala](#)
 - Egokitu, egokia izan dadin.
 - Zergak
 - Jabetzaren gaineko zerga, "errentaren gaineko zergak", Balio Erantsiaren gaineko Zerga, tokiko zergak, lokalaren transferentzia-zerga.
 - Asegurua
 - Boluntarioentzako erantzukizun zibileko aseguru eta boluntarioentzako istripu pertsonalen aseguru.
 - Argia eta ura
- Ekipamendua.
 - Era guztietako tresnak: eskaiolarako kikara, espatulak, argizarizko labana, eskaiolazko aiztoa, marrubiak, gomak, diskoak, modelatzeko tresnak, aliketak, muflak, bridak, gabetak, artikuladorea...

- Makineria: mikromotorra, alkohol-pizgailua, lanpara, eltze polimerizatzaileak, huste-ponpa, prentsa, huts-nahasgailua, leuntzeko makina, autoklabea, ebakigailua, bibragailua, lurrungailua, lanpara polimerizatzailea, termoformagailua.
- Laborategiko mahaiak, ordenagailua, aulkiak, mahaiak.
- Aire-konpresoreak eta xurgatze-ekipoak.
- Materialak. (eskariaren arabera alda daitezke)
 - Protesiak egiteko. Silikona, argizari arrosa, modelatzeko argizaria, artikulazio-argizaria barran, alanbrezko arkuak, erretxina autopolimerizagarria, erretxina fotopolimerizagarria, erretxina termopolimerizagarria, hortz artifizialak, xafla termoplastikoak, II. motako eskaiola, III. motako eskaiola, bereizgailua.
 - Osagarriak. Pintzela, modelatua garbitzeko eskuila, eskularruak, maskarak eta segurtasun-betaurrekoak.

*Gauza gehienak Proclinic-en erosi ditugu.

[LaguDent Kostuen kontuak](#) (kalkulo horria)

Garraio-kostuak

Lanbide honetan beharrezkoa da garraio-enpresa bat kontratatzea klinikarekin harremanetan egon ahal izateko, etengabe egon behar dugu lanak bidaltzen probatzeko, funtsezkoa da hainbat proba egitea azken lanaren aurretik.

Hori dela eta, garraio-enpresa ezagun batekin jarri gara harremanetan: SEUR. Internet bidez topatu ditugu, eta euren webgunean agertzen den telefono zenbakira (916 450 000) deituta hitz egin dugu haiekin akordio batera iristeko.

Estatuko bidalketak, ia egunero, eta pakete txikiak egingo ditugu. Hori dela eta, enpresa txiki bat garenez, proposamen hau egin digute: 48 ordutan entregatzea eta 24 ordutan entregatzeko aukera, eta Espainia osotik bidalketak egitea hilean 350 €-ren truke (azken prezioa izango litzateke, bidalketa jarraituengatik eskaini diguten % 10 aplikatu ondoren).

Dirua biltzeko festaren kostuak

- Lekuaren alokatzea, catering-a, dekorazioa, ezustekoak eta jarduerak.

Gure ustez, Txokitxo, aretxaplaza merkatal gunean dagoen lokal bat gure beharretara egokitzen da. Haiekin harremanetan jarri gara 678 750 281 telefono-zenbakiaren bidez, eta aretoa erreserbatu dugu bost orduko 120 €-ren truke; gainera, cateringa izateko aukera eskaini digute beste 500 €-ren truke.

Lokala guk apainduko dugu merkeago atera dakigun, infografiak banatuko ditugu eta kartelak jarriko ditugu aretoan jartzeko. Guztira 100 € inguru aterako zaizkigu.

Ezagutzen dugun musika talde bat kontratatzea pentsatu dugu festari giroa emateko, horrela jendea gusturago sentituko da, 150 € kostatzen zaigu. Azkenik, 100 €-ko marjina utziko dugu, ezustekoren bat gertatzen bada ere.

KOSTUEN KONTUAK TOTALA

Hortz-protesien laborategiaren kostuak	220.414,19 €
Garraio-kostuak	4200 € anualak (350 € hilabetero)
Dirua biltzeko festaren kostuak	970 €
Guztira:	225.584,19 €

Kostu anualak (urtero ordaindu behar duguna, kostuak aproximazio bat dira ideia bat egiteko zenbat diru ordaindu behar den)

Hortz-protesien laborategiaren kostuak	23.956,20 € (argia eta ura, segurua, zergak, materiala eta 2.000€ gehiago zerbait gertatzerakoan) (materiala gutxi gora behera kalkulatu da, ez da finkoa)
Garraio-kostuak	4200 € anualak
Dirua biltzeko festaren kostuak	-
Guztira:	28.156,20 €